

Baten, batetan / batean, izen-syntagma mugagabeak,

Ibon Sarasola
eta
euskal pseudoepistemonarkhiaranzko
bide arriskutsua ¹

ALFONSO IRIGOIEN *

I bon Sarasola-k «Bat mugatua eta mugagabea literatur tradizioan» delako artikuluaren konklusioak ateratzerakoan, «3. Mugatasuna eta mugagabetasuna euskaraz» izeneko atalean dioenaren araura ², argi gelditzen da kolorerik sekula ikusi ez duen itsu batek besteri kolore-mundua nolako den ezin erakuts diezaiokeen modu berberean berak ere besteri ezin erakuts diezaiokeela ez dakiena, hau da, euskaraz mugagabe absolutua zer den, eta orain ikusten dudanez ez zen Txillardegi bakarrik izan horretan oker ibili zena ³,

* Deustuko Unibertsitatea.

1. «S.D., -SICHERHEITS DIENST-, lehengo Statu alemanaren arauetzoranzko bide arriskutsua» bezalakorik ez erraiteagatik, zein HITLER agintari *führer* zenaren denboran S.S. direlakoan kontrolerako sortu izan baitzen.

2. *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*, pars altera, JOSEBA A. LAKARRA editore, IÑIGO RUIZ ARZALLUZ adivvante, Donostia – San Sebastián 1991, 813-825 orr.

3. Beherago aipatzen dudan neure lan «Euskarazko izen syntagma mugatzailerik gabekoez» delakoan Txillardegi-z diot: «Larresoro-k, *Sustrai bila*, Donostia 1970, eta geroago *Oinarri bila*, Donostia 1977, bigarrenean Txillardegi erabilirik izenez, honezaz eritzi bat zabaldu zuen nahikoa hedatu zena eta ene ustez ez aski landua. *Mugagabe* edo *indeterminatu* hitza erabiltzen du honela definiturik: *hiztunekiko ez-ezagun edo mugagabea*, 40 orr., eta tradiziozko gramatikaren terminologia da, hark artikulu determinatua eta indeterminatua bereizten baititu, eta oinarri honetarik abiatzen dela, indeterminatu guztietan berboarekiko komunztadura, numerozkoak ere tartean sartzen dituela, singularrean proposatzen du, «mugagabeak *singularra* behar du aditzean beti» dioela, baina beriziki numerozkoetan euskaldun gehienek arteko ohituraren kontra doa eta baita tradiziozko literaturaren kontra ere, alderdi batera utzirik leku bateko edo besteko erabiltzeak edo ardura asko hartu gabekoak, batez ere berboaren ondorik doazenean, eta hizkuntzaren antzinateko garaietan gertatu ahal izan dena, horrezako literaturarik ez baitugu, ikus *op. cit.*, «2.2.-Mugagabea eta aditza», 58 orr. Uste dut ohitura berri hori, batzuen artean artez eta jator balitz legez hedatu zena, zuzendu egin behar dela, sekula lokatu behar ez zen pundura itzulirik. Txillardegi bera bere *Euskal gramatika-n*, Bilbao 1978, «4. Mugagabearen komunztadura», 35 orr. eta hurrengoak, geroago honela mintzatzen da, ordea: «Nahiz erdalkeria hau ez oso zaharra izan (ikus «Sustrai Bila» 62/69), badirudi bi komunztadurak eman beharko direla ontzat: *bi liburu erosi dut / bi liburu erosi ditut*». Baina ez dut uste norma nagusizat hori horrela formulatzea zuzena denik, zeren euskaldunik gehienek berez bigarren arauera jokatzeko eta jokatu izan baitute, eta

oraindik ere arazo hori ondo ulertu ez duenik ez baita falta, beste bideska batzutarik ibiliarren. Edozein modutan ere eskerrak emaiten dizkiot hasieran «bat-en deklinabideaz» ari dela nigatik dioenagatik: «Ezagutzen ditudanen artean arazoa ongien eta zehatzen azaltzen duena A. Irigoyen (1978: 752 hh) da zalantzarik gabe». Sarasola-k bere lanean hurrengo hitzak dakartza:

«Inork ez du zalantzan jartzen euskaraz izen-sintagma mugagabeak badaudela. Baina falta zaiguna mugagabetasun horren deskribapen zehatza da, zeren badirudi sintagman adierazten dena hiztunekiko ezagun izanaren irizpideak ez dituela, ez hurrik eman ere, kasu guztiak esplikatzen. Deskribapen horren ezean, gure aurreiritzien arabera, euskal deklinabidean gertatzen diren sinkretismoen laguntzaz, agerraldi konkretuak *interpretatzera* jotzen dugu, eta hain zuzen hori da arazoa ez argitzeko biderik egokiena. Adibide bakar bat jartzeko, Leizarragaren (Mt 10, 5) *Gentiletarát etzoaztela, eta Samaritanoén, hiritan etzaitzeltela sar* esaldian zergatik ez *Samaritanoren* edo, batez ere, zergatik ez *hiritan*? Izenlagun mugatuak zergatik ez du izena mugatzen kasu honetan? Zein kasutan mugatzen du? Gertatzen dena, esaldi horretan *ezein* edo horrelako zerbait ezabaturik dagoela baldin bada, zein dira ezabaketa horren legeak? Eta pasarte horren gainerako itzultzaile guztiek zergatik ematen dute *hiri* mugatuan? Nor dabil 'oker'? Eta benetan axola duena, zein eredu har euskara batuan?».

Lehenengo ta behin erran beharrean aurkitzen naiz nik badudala lan bat «Euskarazko izen sintagma mugatzailerik gabekoez» tituluduna, zein Kampion-en gorazarrez 1984-garren urteko irailaren 25-etik 29-ra Euskaltzaindiak Iruñean eginiko kongresuan aurkeztatu bainuen, cfr. *Euskerak*, XXX (1985), 129-139 orr., eta *De re philologica linguae uasconicae*, Bilbao 1985, 1-22 orr., eta erdaraz «Sobre la no determinación del sintagma nominal en lengua vasca», *De re philologica linguae uasconicae II*, Bilbao 1987, 39-57 orr.⁴.

Lan horretan, beste gauza askoren artean, erregela hau ere formulatzen da: «Izen sintagma mugatzailerik gabekoa eta adjetiborik ere ez duena ezezko frase baten barruan agertzen baldin bada, delako izen sintagmak duen sustantiboaren edukia zeharo ezeztaturik gelditzen da. *Ez dut etxerik*, ez dut bat bakarra bera ere, baina *ez dut etxe egokirik*, egokia edo egokiak

ohitura hori baita oinarritzat hartu behar dena, salbuespenak, bai eremu geografikoaren arauera eta bai kontestuaren arauera, salbu».

4. Erdarazkoa Gasteiz-ko Fakultatean eginiko oposizio batzutura aurkeztatu nuen, -tribunaleko gehienek euskaraz ez zuten ulertzen-, beste ikerketa-lan *En torno a la evolución y desarrollo del sistema verbal vasco* titulupekoarekin batera, gainerako *curriculum*, ikerketa-proiektu eta abarrez horniturik, -handik laster egingo zen aipatu den ezkenengo lanaz osaturiko liburuaren zabalkundea-, eta IBON SARASOLA tribunaleko bazen ere hasieran aipaturiko ikerketa-lanak zioenaz behintzat, eta agian beste gauza gehiagoz, enteratu ere ez zen egin, zuzenean bederen, itxura guztien araura, eta berriz itzuli behar zituzten paperen bila -argitaraturiko lanak eta abar- joan nintzenez, kathedratiko katalan bienak jaso gabe han zeudenez gero, presentazio-egunean transporte publikoen erruz Gasteiz-era heltzeko problemak izan eta bidali ere ez baitzitzaien egin, etxera ekarri nituen, -MITXELENA eta PASCUAL kathedratikoek beste biak harturik zituzten-. Gainerakoaz hobe da ez hitz egitea, eta ez lotsa izaitzeko arrazoirik dudalako, alderantziz baizik. Hori ondo dakike JOSEBA LAKARRA publikoaren artean entzule egon zenak, eta beste batzuk ere bai.

ditudala ukatzen da, bat edo bat baino gehiago badut edo ez badut ere egoki ez denik»⁵.

Beraz, ez dut ikusten zergatik *Gentiletarát etzoaztela, eta Samaritanoén hiritan etzaitzela sar* «esaldian» inolako «ezein edo horrelako zerbait» ezabaturik ote dagoen pentsatu behar den. Ez da ezer ezabatu, negazio absolutuzko phrasea besterik ez baita, hau da: 'Ez zaitzela sar Samaritanoen hiri bakar baten bertan ere'.

Eta are gutiago pentsatu behar da Sarasola-k *izenlagun* deitzen duena, baina nik neurorrek, gure ingurutik kanpora zabalago dabilen arauetzko terminologia erabilirik, *izenaren osagarri zehaztailea* deitzea nahiago nukeena, are gutiago pentsatu behar da, diot berriz, izenaren osagarri zehaztaileak komuntzadurarik izan behar duenik laguntzen dion izenarekin, bakoitzak bere autonomia baitu, –elementala Watson adiskidea–, eta horren arauetzko bidetik ez dakit zertara datorren *Samaritanoren hiritan etzaitzela sar, edo Samaritanoen hiritan etzaitzela sar* erako gurutzatze posibleak asmatzen saiatzea. «Izenlagun mugatuak» zergatik ez duen izena mugatzen kasu honetan? Zertan mugatu beharrik ez duelako, autonomoak baitira. Beste kontu bat da geroagoko autoreren batek edo bestek, erdaraz gertatzen ez den erara ez singular eta ez plural ez den mugagabe absolutuaren orde, inoiz artikuludunak erabili izatea itzulpenari dagokion eraginez bategatik, edota beste zerbategatik. Baina euskaldunok geure memorio historikoan eta hainbat hizkera bizitan mugagabea ere badugu, eta euskaraz izkribatzerakoan erabili nahi bagendu ez dugu zertan Sarasola-ri eta are gutiago Euskaltzaindiari baimenik eskatzen ibili beharrik, gure hizkuntza ez baita ez Sarasola-ren eta ezta Euskaltzaindiaren beraren propietate privatua ere, lehengo eta oraingo komunitate linguistiko osoarena baizik, historia ta guzti⁶, eta ikasten duenaren esku baitago, horretarako behar den nekea hartu eta argitasunez ari izanez gero. Eta egiten duen hurrengo galdeari: «Eta pasarte horren gainerako itzultzaile guztiek zergatik ematen dute *hiri* mugatuan?», alegia, «Nor dabil 'oker'?» erantzuteak ez du zentzurik tipienera. Nolanahi dela, Leizarraga-ren aipaturiko eredu hori bikaina da, eta ene belaunaldiko euskaldun iturri jatorrizkoetan edan dutenentzat bederen inolako problemarik gabea alde horretarik.

Gehiago oraindik, Leizarraga-k emaiten duen testua⁷, *Gentiletarát etzoaztela, eta Samaritanoén hiritan etzaitzela sar*, grekozko tradizioko testuari jarraitzen zaio: Εἰς ὁδὸν ἕθνῶν μὴ ἀπέλθῃτε, καὶ εἰς πόλιν

5. Erdarazkoan: «Cuando un sintagma nominal carente de determinante, así como también de adjetivo, está incluido en una frase negativa plena el contenido del sustantivo de dicho sintagma queda negado absolutamente. *Ez dut etxerik* 'no tengo casa (alguna), (no tengo casas)', –negación absoluta–, pero *ez dut etxe egokirik* 'no tengo casa adecuada (alguna), (no tengo casas adecuadas) (independientemente de que tenga o no otra u otras que no sean adecuadas)', –negación parcial, únicamente de lo que señala el adjetivo–».

6. Gorago ikusi denez hurrengo hau baitio: «eta benetan axola duena, zein eredu har euskara batuan?».

7. IOANNES LEIÇARRAGA, *Jesus Christ gure Jaunaren Testamentu berria*, Rochelan 1571. Ikus TH. LINSCHMANN eta H. SCHUCHARDT-en edizio kritikoa, azken honen sarrera duela: I. LEIÇARRAGAS *baskische Bücher von 1571 (Neues Testament, Kalender und Abc)*, Strassburg 1900. Euskaltzaindiaren eraginez argitara emaniko edizio faksimila ere ikus daiteke, Bilbao 1990.

Σαμαριτῶν μὴ εἰσέλθητε. Hor εἰς πόλιν Σαμαριτῶν delakoan εἰς πόλιν singularrean eta artikulurik gabe dago, eta euskarazko textuak bezala 'hiri bat bakarrean ere (ez zaitezte la sar)' erran nahi du, baina latinezko Vulgata-k dakarren textua ⁸, ordea, *In viam gentium ne abieritis, et in civitates Samaritanorum ne intraveritis* da, *in civitates* pluralean duela, –latinak ez du artikulurik erabiltzen, eta horren ondorioz ez du bereizten harzaz baliaturik hura gabeko mugagabe singularrik eta artikuludun mugaturik–, eta jakina, Duvoisin-ek, erraite baterako, bere itzulpen XIX mendekoa Vulgata-tik egin zuenez gero, *Jendayen bidera ez goan, eta ez sar Samariarren hirietara* itzuli zuen euskarara, eta latinezko textuaren ondorik *hirietara* pluralean eman zuen ⁹. Sekeretu guztia, argi ta garbi dagoenez, horixe besterik ez da, eta ez da argitu behar inolako mysteriorik, eta are gutiago «nor dabil 'oker'? Eta benetan axola duena, zein eredu har euskara batuan?» bezalako galderik egin, galde horiek *flatus vocis* besterik ez baitira, eta nahaste sortzaile, –beherago emaiten dira eraskin moduan Leizarraga-k darabiltzan izen-syntagma mugagabe absolutuzko gehiago Duvoisin-ek itzuliriko textu berberekin konparaturik–.

Horrela baino ezin explika daiteke Sarasola-ri hurrengo phrasea bezalakoak ohartu gabe ateratzea: *Honekin ez dut esan nahi ortografia berria edo eraberritua duten hizkuntzetan maileguzko hitz berriak ez dituztela arazorik sortu*, alegia. Noiztik hona du komunztadura plurala mugagabe absolutu den partitiboak, alde batera uzten baldin baditugu gaztelaniaren eraginez horrela akatsak egiten hasirik diren euskaldun berri eta berrituen joerak ¹⁰

Sarasola-k, gorago ikusi dugunez, «izen-syntagma mugagabeak» aipatzen dituenean, dio: «zeren badirudi syntagman adierazten dena hiztunekiko ezagun izanaren irizpideak ez dituela, ez hurrik eman ere, kasu guztiak esplikatzeko». Baina nik neure aldetik oraindik gehiago erranen nioke Sarasola-ri, benetako izen-syntagma mugagabeez ari bagara, –nik neurorrek ulertzen dudana zentzuan, noski, eta ez Txillardegik garai baten aipatzen zuen zentzuan, hasierako nota baten ikusi dugunez–, «hiztunekiko ezagun izanaren irizpideak» ez duela kasu bakar bat bera ere esplikatzeko, zeren semantikazko oposizio horrek, hiztunekiko ezagun izatearenak edo ez izatearenak, ez baitu symmetriarik mugagabe absolutuaren planteamentuarekin. Sarasola-k kanpaiak entzun dituela dirudi, baina ez daki non. Jakina, *bat* elementua mugatzaile singularra da izen-syntagma baten ondorik doanean,

8. *Biblia sacra, juxta Vulgatam Clementinam, divisionibus, summariis et concordantiis ornata*, Desclée et socii, Edit. Pont., Romae – Tornaci – Parisiis, 1938. Denuo ediderunt complures Scripturae Sacrae Professores Facultatis theologiae Parisiensis et Seminarii Sancti Sulpitii.

Grezokorako ikus *Nuevo Testamento Trilingüe*, edición crítica de JOSÉ MARÍA BOVER (†) y JOSÉ O'CALLAGHAN, presentación por CARLO M. MARTINI, Madrid MCMLXXVII, op. cit. Hizkuntzak grekoa, latina (neovulgata) eta gaztelania dira.

9. *Bible Saindua edo Testament Zahar eta Berria, Duvoisin kapitainak latinezko Bulgatatik lehembiziko aldiko Laphurdiko eskarara itzulia*. LUIS-LUZIANO BONAPARTE *printzeak argitara emana* (edizioa 1859-garreneko martxoaren 9-an hasi zen eta 1865-garreneko martxoaren 27-an amaitu). Aita LINO AKESOLO-ren hitzaurre batekin hiru tomotan edizio faksimila egin zen Bilbon 1972-garren urtean.

10. Aurreko artikuluko baten ere beste kontextu baten inguruan gauza bera erraiten nion, baina hemen arira datorrenez gero berriz diotsat, ikus ene lan «Euskal Herritik kanpoko leku-izenek» artikuluko 1991-XII-6-ko data daramana eta orainarte xerokopiaz besterik zabaldu ez dena, Deustuko Unibertsitatean eta Euskal Akademia inguruko jendearen artean.

eta ez mugagabea, izen-syntagmako sustantiboak adierazten duena hiztunetik ezaguna ez dela ulerterazten duenarren, Txillardegik besterik erraiten bazuen ere, baina hori aspaldiko kontua da, eta *batzu* plurala da, eta horrezaz gainera *bata* artikulua singulara da, eta *batzuek*, *batzuek* artikulua plurala dira, bigarrenak artikulua gradu hurbilekoa duela. Gainera *-a* artikulua berak ere, mugatzaile denarren, ez du euskaraz beti izen-syntagmako sustantiboak adierazten duena hiztunetik ezaguna dela adierazten, eta maiz komunztadura egiteko baizik ez da erabiltzen, hau da, singularra edo plurala dela markatzeko, euskaraz ez baitugu numero gramatikalik, Izan-ere, izen-syntagma mugagabeak euskaraz ez du inolako elementurik eramaiten, ez singularraren eta pluralaren arteko oposizioirik duenik, ez kolektiborik, ez bestalakorik, ezta denik-eta indefinituen izanik ere, eta jakina, inolako mugatzaileirik hartzen ez duen izen-syntagma ez da ez singular eta ez plural, ez kolektibo, ez ezer, eta ezin egin dezake sekula verboarekiko komunztadurarik hartan elementu pluralik kokatzen baldin bada, plural ez dena behar baitu horretarako ¹¹.

Zenbait denbora dela «*Arau(r)* hitzetik heldu diren *araua* / *arauera*, *arauetzko* / *arauetzko* formez» artikulua egin nuen, hain zuzen ere Sarasolaren redakziopeko testu bati erantzunik, zein Euskaltzaindiak, hypothesis faltsoz horniturik egonarren, aho batez ontzat hartu baitzuen 1991-eko ekainaren 28-an, –Krutwig eta ni, botazioaren kontra geundela adierazi eta gero, botorik eman gabe gelditu ginen–, cfr. *Euskaldunon egunkaria*, 1991-eko uztailak 30, eta Euskaltzaindira 1991 urteko uztailaren 15-ean bidali nuen, hil bereko 26-ko batzarrean trata ledin. Sarasola-k han izkribaturiko arrazoa, alde batera utzirik hypothesis faltsoaren kontua, zein aipaturiko ene artikuluan bertan ikus baitaiteke, harrigarriro *arabera* hitzak lortua zuela batasuna izan zen. Eta, etsenplu bat emaitarren, memoria historikoan hasiera-hasieratik ditugun *horren arauetzko*, eta abar, formak zeharo baztertzen zituen, existitzen ez balira bezala, eta jakina, *arauera* ere bai, zein *arabera* forma evoluzio fonetikoz sor ledin beharrezko baitzen ¹². Baina

11. Horrek ezerekin zer ikusirik izaitzekotan syntaxiarekin du zer ikusi, eta syntaxirik elementalenarekin gainera, –hala gertatzen da zentzu bizidun edo bizigabeko izen-syntagma syntaxiaren aldetik asymmetria dakartenen kontuan ere–, eta jakina, goragoko nota baten aipaturiko oposizioetan, «perfil» delakoaren kausaz, kasu baten, konparazio baterako, ezeri balioa eman nahi bazitzaion syntaxiari zen, nahiz-eta gero syntaxi delakoaren aitzakiaz arrisku nabarmena izan beste arlo guztietarako ere inor legezko jakitun ignorantzian oinarrituriko bilaka ledin. Tribunalekoren bat ignorantzian bizi baldin bada, eta horrezaz gainera baziren han euskararik ez zekiten hiru gomitatu harrizko, zer balio epistemontiko egiazko datekeenik erakusten du halako botok, jakiturari dagokiola legearen aurrean alferreko paper bustia eragiteko arrisku bizia baldin badu, inor gizontzeko bide zabaleko izanik ere?

12. Ez dakit zertan denbora alferrik galdu behar den *arabera* forma zorigaitzoko horren alde arau zorrotz sekula eman behar ez liratekeenak finkatu nahirik.

«*Arau(r)* hitzetik heldu diren *araua* / *arauera*, *arauetzko* / *arauetzko* formez» aipaturiko artikuluan ahapeka baino erraiten ez denez gero, hemen argi ta garbi erran beharrean aurkitzen naiz agi danez MITXELENA dela munduan autore bakarra hil ondoan ere produkzio berria bere izenpean argitaratzen duena, hain zuzen ere bizi zenean egin gabe zegoena, eta jakin behariko litzateke horrek zer ondorio duen autore-eskubideetan, zein lana bera egiteagatik ogasun publikoari koska eginik diru mordoska jasoarren, gainerako emaiten baitira, bere egunean jarraitze-batzordeko zirenen artekoren batzuren aldetik salatu bazen ere, –halako eta antzeko gauzek, harrigarriro, barruko harremanetan problemak baino ez zizkien sortu erre gabeko besterik ezin izan zitezkeen hainei–.

batasuna nola? Zeren bizkaitar edo gipuzkoar batentzat berdin-berdin baita batzuek zein bestea hartzea, zaharragoak nahiz berriagoa den *arabera*, halakorik ez baitu erabili izan oraintsurarte, eta erabili ere Ifarraldeko literatura-
ren eraginez, eta, izan-ere, hobe luke memoria historiko osoan murgiltzea
autorerik hoberenetan edanik ¹³.

Eta oraingo gaiari lotzen gatzaiarkiola San Mattheo-ren textuko *hiritan*
edo *hiritan* delako kontuan ere subkonszienteki adierazi gura ote litzateke
hiritan forma plurula erabilirik erdietsi zela batasuna? Izan-ere, agian *hiri-
tan* delako konstrukzioak antz handiegia duke *batetan* konstrukzio Sarasola-
k begitan harturik duenarekin, hain zuzen ere memoria historikoan *ba-
tean* formatik bereizten denarekin.

Jakina, Bizkaiko berbetetan, eta abar, mundu guztiak bereizten du
edonon beti, tradizio zaharra gorderik, noski, *baten* eta *batean*, baina gero
bateko egiten da, eta hor ezin egin da bereizketarik, halakok ez baitu inoiz
inon artikulurik hartzen, *batetan* eta *batean* erabilirik ere *batetako* formaren
bidez ezin egin den bezala-bezalaxe. Nabaria denez *batean* ere bietarako
erabiltzen hasi ziren, besteekin nahasirik, geographiazko alderdi baten, eta
Sarasola-k erabilera hori norma orokor izan dadin nahiago luke, besteak
bazterturik.

Maila hori, ordea, maila demotikoa litzateke. Eta agian Sarasola-ren
gogoia dateke, hala dirudi behintzat, horrelatsuko maila bakar baten koka-
tzea literatura-hizkuntza, oro uniformaturik joan gaitezen bere kornetaren
soinupean. Baina maila demotiko geographia osoa hartzen ez duen horrez
gainera badira beste maila batzu ere, eta ahal den neurrian goragoko baten
-beheragokorik ukatu gabe- saiatu nahi gendukeenak ere bagara, eta bide
horretarik ibiltzea ezin galeraz lezake ez Sarasola-k ez inork, eta are gutiago
administrazioko politiko euskal gazetan sasi-letrau boteretsu datekeenek,
epistemophobican jausi ezik ¹⁴.

13. Ifarraldean egungo egunean *arabera*n aski zabaldurik dago eta bada euskaltzainik
izkribuz ere erabiltzen duenik, inesivoko *-n* itsatsirik duela, eta jatorriz adlativozko den *-ra*
fosilizaturik gelditu dela, eta ni ez nintzateke baterre harrizko Hegoaldean oraingo literatura-
ren eraginez *arabera* forma bakarrik erabiltzen hasirik, Sarasola-ren bide arminetik, noski,
*arabera*zko eta horrelakoak irakurtzen ohituko bagina, literatura klasikoko *arabera*zko forma-
ren ordez, eta jakina, ez litzateke sekula agertuko, konparazio baterako, *arau horretara*
typokorik, Bizkai-Gipuzkoetan erabiltzen den *era horretara* / *modu horretara* bezalatsuko
denik. Beste alde batetik Leizarraga-k darabilena *araura* da, eta hori da formarik zahar eta
gardenena, Zuberora-ko *araur* edo *arau* adlativozko ez direnak ahantzi gabe.

14. Beste kontu bat da egungo egunean batek baino gehiagok batuaren izenean erabil-
tzen duen hyperformazko zenbait gauza salatzea. Baina horretan ez da eredurik eman behar,
eta are gutiago erabakirik hartu. Aski da jendeari solezismoak begien aurrean ipineraztea.
Edukazio-kontua besterik ez da, paideusiazkoa. Izan-ere, egin izan dut neurorrek ere halako-
rik inoiz, eta agian gehiago egin beharko litzateke. Hor dira, konparazio baterako, ene
artikulu «*Bailitzan, bailirean*» tipoko erak zuzenak ote dira euskaraz tradizio zaharreko
systeman?», eta «*Ez ukatzailea euskal tradizioaren bidetik noiz ta nola*», cfr. ene *De re
philologica linguae nasconicae III*, Bilbao 1990, 107-114 eta 115-122 orr., -lehenengoa Aita
Patxi Altuna-ri eginiko omenaldi-liburuan ere ikus daiteke, Donostia 1990, 169-175 orr., eta
bigarrena *Euskera* aldizkarian, XXXIV (1989), 241-245 orr.-.

Kasu berri bat edo beste aipatzearen: Euskaraz badira *honezker*o eta *harrezker*o for-
mak, bakoitza hitz bakar bat bailitz bezala edonork erabiltzen dituenak, eta ene ustez horrela
erran eta izkribatu behar liratekeenak, besterik gabe. Baina garai baten bederen lehenengoa
Amatiño-k *orainez gero* erara emaiten zuen, eta orain *honez gero* eta *harez gero* irakurri ohi
ditugu, beti ez bada ere. Hala-ere (*h*)arek forma, eta ez *hark*, erabiltzen duten hiztun

Batean amphibologikoaren bezalatsuko erabilerak *urte askoan* eta horrelako formetara ere zabaldurik daude Bizkai-Gipuzkoetako eta Nafarroako parte bateko hizkeretan, katea luzea datorrela horren atzean ¹⁵. Baina ez da gauza bera hala-ere, zeren halakoak denbora-zentzuzko ta neurri-zentzuzko izen-syntagmetan baino agertzen ez baitira. Konparazio baterako, (*h*)*iru etxetan* konstrukzioak leku-zentzua du, eta arrazoi horrexegatik forma bakarra, ez baita **hiru etxean* bezalakorik erraiten, baina (*h*)*iru urtetan* eta (*h*)*iru urtean* konstrukzioen kasuan batak eta besteak, biek korritzen dute, eta zentzuaren aldetik zertxobait bereizten dira: *le(h)enago urte guztietan joaten zan hara, eta aspaldi (h)onetan ez (h)orrenbeste, ze (h)iru urtetan be(h)intzat ez da joan*, alde batetik, baina (*h*)*iru urtean bizi izan da han*, bestetik, azken phrase honen typokoetan denbora osoa *ad sensum* singular moduan hartzen baita, *azkenengo (h)iru urte (h)onetan* erraiten denean bezala, *azkenengo (h)iru urteotan* erakoa ere erruz erabiliarren, batean denbora osoa unitate bat bailitz bezala emanik, eta bestean urteak pluralezko zentzuan artikulatu gradu hurbilekoaren bidez adierazirik, hiru baitira, *hiru urteetan* artikulatu pluralduna erabiltzen denean bezalatsu. Baita-ere: *urte askoan bizi izan da (h)an*, baina beste alde batetik: *le(h)enago urte guztietan joaten zan (h)ara, eta aspaldi (h)onetan ez (h)orrenbeste, ze urte askotan ez da joaten*. Baina tokian-tokian bada kasuren baten edo bestetan *urte askoan* typoko konstrukziorik erabiltzeko joerarik ez duen hiztunik ere, eta horren ondorioz *urte askotan* erakoak hautatzen dituenik ¹⁶.

Arrazoi berberagatik, (*h*)*iru urtetako sagardoa dauko etxean* erabiltzen da, alde batetik, hiru urte desberdinetan eginiko edo erosiriko sagardoa dela adierazteko, baina (*h*)*iru urteko sagardoa dauko etxean*, hau da, hiru urte dituen, eta (*h*)*iru urteko semea*, bestetik, *azken hiru urte (h)onetako bizimodua* erraiten denean bezalatsu. Eta, jakina, lekuari badagokio: (*h*)*iru etxetako sagardoa* typokoak bakarrik, eta ez **hiru etxeko sagardoa*.

ERASKINA

LEIÇARRAGA-K DARABILTZAN ZENBAIT IZEN-SYNTAGMA MUGAGABE ABSOLUTUZKO ETA DUVOISIN-EK ITZULIRIKO TEXTU BERBERAK, ETA BESTE

Gorago ikusi den ereduaz gainera gehiago emaiten dira ondorik. Hara hemen:

Leiçarraga-k era honetara itzulzen du hurrengo testua: *Oso diradenéc*

berberak (*h*)*arrez (kero)* erraiten dute. Eta, beste alde batetik, *etorri denez gero* izkribatu ohi bada ere, eta ez *etorri den ezkerero*, nola eman behar da *hamaikak ezkerero*? Ez dut uste inola ere **hamaikaz gero* egin behar denik, ezta hurrik eman ere, barbarismo bat besterik ez bailitzateke. Beraz ez dago beste biderik *hamaikak ezkerero* erara emaita baizik.

15. Lardizabal-ek, erraiterako, *urte ascoan seme gabe egon ciran dakar, eta ogneita amaica urtean gogo gaiztoz onen mendean vici izan ciran*, 387 orr., cfr. *Testamentu zarreco eta berrico condaira*, Tolosa 1887.

16. Cfr. INAKI GAMINDE, «Leku denborazko kasuen mugagabeaz», *Ele*, 7, Bilbao 1990 (AEK-ren irakasle eskolak), 103-129 orr.

eztute medicuren beharric, baina eri diradenéc, «S. Mathev», IX, 12, grekoz Οὐ χρείαν ἔχουσιν οἱ ἰσχύοντες ἰατροῦ ἀλλ' οἱ κακῶς ἔχοντες, eta izan-ere mugagabe absolutu den *medicuren* genitibozko forma ἰατροῦ grekozko genitibo singular artikulurik gabekoaren ondorik heldu da. Baina Vulgata-k *Non est opus valentibus medicus, sed male habentibus* du, eta *medicus* genitibo kasuan ez dagoenez gero Duvoisin-ek *Sendoek ez dute sendakin beharric, bai ordean eri direnek* erara genitivorik gabeko mugagabe absolutuan itzultzen du, *sendakin beharric* hautaturik.

Leizarraga-k badu gehiago ere halakorik: *Orduan erran ciecéen, Ençute-co beharririk duenac, ençun beça*, «S. Marc», III, 9, grekoz: καὶ ἔλεγεν ὅς ἔχει ὦτα ἀκούειν ἀκουέτω, non ὦτα, 'begiak', artikulurik gabeko pluralean baitago, baina, hala-ere, Leizarraga euskarak berez duen mugagabe absolutu ez singular eta ez plural ez denaz baliatu zen itzulpenarako, grekozko zentzua batere arbuatu gabe. Izan-ere *ençuteco beharririk duenac* konstrukzioa, euskaraz baldintzazko zentzura makurtzen baita, baiezkoa izanik ere inolako oztoporik gabe eman daiteke mugagabe absolutuan¹⁷. Vulgata-k ere grekozkoaren erara *aures* pluralean du: *Et dicebat, Qui habet aures audiendi, audiat*, baina kasu honetan Duvoisin-ek ere Leizarraga-k bezalatsu itzultzen du mugagabe absolutua hautaturik: *Eta Jesusek erran zioten: Beharririk duenak aditzeko, adi beza*.

Leizarraga-k: *Baina predicatzen ditugu, scribatua den beçala, Beguic ikussi eztituen, eta beharric ençun eztituen gauçac, eta guizonén bihotzetara igan içan ez tiradenac, cein laincoac hari on daritzoteney appaindu baitrauzté*, «Corinthianoe. I», II, 9, grekoz: ἀλλὰ καθὼς γέγραπται Ἄ ὀφθαλμοῦς οὐκ εἶδεν καὶ οὖς οὐκ ἤκουσεν καὶ ἐπὶ καρδίαν ἀνθρώπου οὐκ ἀνέβη, ἃ ἠτοίμασεν ὁ θεὸς τοῖς ἀγαπῶσιν αὐτόν, non ὀφθαλμοῦς, 'begia', eta οὖς, 'beharria', artikulurik gabeko singularrean baitaude. Hala-ere ἐπὶ καρδίαν ἀνθρώπου delakoan sustantivo biak singularrean egonik ere *guizonén bihotzetara* sustantivo pluraldunetz ordezkatzan ditu. Izan-ere, berez, teorikoki bederen, *begik ikusi ez dituen, eta beharric entzun ez dituen eta bihotz gizonenera igan izan ez diradenak* erara itzul zezan posible zen hizkuntzaren systema barruan, baina *gizonen bihotzera* ohizko hitz-ordena hautatu izan balu hark amphibologiazko itxura har zezakeen, *gizonen* forma azentuaren bidez-edo pluraletik bereizi ezik. Vulgata-k berak ere singularrean ditu *oculus* eta baita *auris* eta *cor hominis* ere: *sed sicut scriptum est: Quod oculus non vidit, nec auris audivit, nec in cor hominis ascendit, quae praeparavit Deus iis qui diligunt illum*, baina Duvoisin-ek kasu honetan ez du mugagabe absolutuaz itzultzen, artikulu singular dunaz baizik: *Bainan iskribatua den arren: Begiak ez du ikhusi, beharriak ez du aditu, gizonaren*

17. Ikus ene aipaturiko lan «Euskarazko izen sintagma mugatzailerik gabekoez», non erraiten baita: «Ez da hala, ordea, jokabide nagusi modura, hurrengo kasuetan: frasa ezezkoa denean, baiezko edo ezezko galdera adierazten duenean, baiezko edo ezezko duda erantzunik espero ez dela agertzen duenean, baiezko edo ezezko baldintza adierazten duenean, eta abar, ..., baldintzazko baiezkoak: *ogia jan baldin badu ez da gose izango*, eta berezirik, *ogirik jan baldin badu ez da gose izango*, ezezkoak: *ogia jan ez baldin badu gose izango da*, eta berezirik, *ogirik jan ez baldin badu gose izango da*, ikus Leic., «S. Lvc.», III, 11: *eta iatecoric duenac halaber eguin beça* 'Vulg.: et qui habet escas, similiter faciat', baiezko frase nominalizatua bere balioz baldintzazkoari hurreratzen zaiola».

bihotzak ez du nabaritu zer aphaindu duen Jainkoak hura maithatzen dutenentzat, eta izan-ere itzulpena Leizarraga-rena baino bizitasun askozaz guttiagokoa da, eta aski motel eta ilungunez hornitua, gaztelaniak berak ere «lo que ojo no vio, ni oído oyó» askozaz gardenago den artikulurik gabeko mugagabea emaiten baitu. Eta abar.

Oihenart-ek ere baditu errefracuetan, n.º 153¹⁸: *Esacussan beguic nigar esteguic*, 'l'oeil qui ne te void pas, ne te pleurera pas', non izen-syntagma osatzen duen *beguic* forma mugagabezko ergativo kasuan baitago, negazio absolutua eginik, hau da, 'begi bakar batek berak ere ez'.

N.º 211: *Harri erabilic estu biltzen oroldiric*, 'vne pierre souuent remuée n'engendre point de mousse', non izen-syntagma osatzen duen *harri erabilic* multzoa mugagabezko ergativo kasuan baitago, negazio absolutua eginik, hau da, 'harri erabili bakar batek berak ere ez'.

*Refranes y Sentencias*¹⁹ (1596) delakoan ere ez da halakorik falta Bizkaia-ri dagokiola: n.º 302: *Azaga onic estau mandazaic*, 'postrimeria buena no la tiene *mulatero*', non izen-syntagma osatzen duen *mandazaic* forma mugagabezko ergativo kasuan baitago, negazio absolutua eginik, hau da, 'mandazain bat bakar batek berak ere ez'.

Juan Antonio Mogel-ek ere emaiten du halakorik bere *Peru Abarca* itzulpenezko ez den liburuan²⁰: *Jatorranian epallia, ta iru edo lau guizonen oratuta, sartuten deubanian ganibeta samati erraijetaraño, irrinzaca aguanian oñi ecin eraginda, esango doc. ¡O azeri zorionecua!*, 89 orr., non izen-syntagma osatzen duen *oñi* forma mugagabezko dativo kasuan baitago, negazio absolutua eginik, hau da *oñi ecin eraginda*, 'oin bat bakarrari berari ere ezin eraginik'. Baita-ere *Iñoren basori orri bat quenduten ez jacó, bai zaindu ondo gueuriac*, 93 orr., non izen-syntagma osatzen duen *basori* forma mugagabezko dativo kasuan baitago, negazio absolutua eginik, hau da, *iñoren basori... quenduten ez jacó*, 'besteren baso bakar bati ere... kentzen ez zaio'.

Bilbao, 1992-garren urteko urtarrilaren 10-ean.

LABURPENA

Lan honetan Ibon Sarasola-ren artikulua «Bat mugatua eta mugagabea literatur tradizioan» titulua duenari erantzuten zaio, eta bere puntuan jarri nahi da euskarazko izen-syntagma mugagabeen kontua, zein ez baitira ez singular eta ez plural numero gramatikalarik dagokionez, hizkuntzan substantivo-adjektivoek ez baitute numeroaren moziorik, eta horretarako artikulua edo beste mugatzaile mozioa dutenak erabili

18. *Les proverbes basques recueillis par le S^r d'Oihenart, plus les poesies basques du mesme auteur*, Paris 1657. Bada RIEV-ek egin zuen aparteko edizio faksimila ere, Tolosa 1936.

19. *Refranes y sentencias comunes en Bascuence, declaradas en Romance con numeros sobre cada palabra, para que se entiendan las dos lenguas. Impreso con licencia en Pamplona por PEDRO PORRALIS de Amberes, 1596*. Darmstadt-eko Bibliothekan gordetzen zen ale bakarra desagertu egin zen, baina *La Gran Enciclopedia Vasca* delakoan, X (1975), 616 orr. eta hurrengoak, haren edizio faksimil neurorrek argitara emana aurki daiteke.

Ikus baita-ere W. J. VAN EYS-ek argitara emana *Proverbes basques-espagnols* titulupean, Genève et Bale 1896.

20. PERU ABARCA, Durango 1881. Zarauzko esku-izkributik argitara emana. Bada edizio faksimila ere GEREDIAGA ELKARTEAK Durangon 1981 urtean egin.

behar baitira. Halako syntagmek, gainera, ezezko phrasean adjektivo gabe doazenean negazio absolutua egiten laguntzen dute. Gainera protasi kondizional baiezko eta ezezkoetan ere agertzen dira, galdezko phrase baiezko eta ezezkoetan, eta abar, eta abar. Baiezko phrase absolutuetan, ordea, restriktzioak nabari dira, haiek adierazkor-espresiboak, eta abar, direnean baino ezin ager baitaitezke. Halako syntagmak kolektivo edo bestelako ere ez dira, zentzu horiek adierazteko mugatzaile egokiak har baititzakete.

Hizkuntzaren normalizazio larregizko dekretu-golpez eginikoari ere kontra egiten zaio.

RESUMEN

Se trata de un trabajo que, respondiendo a un artículo de Ibon Sarasola, «Bat mugatua eta mugagabea literatur tradizioan», intenta situar en su punto la cuestión de los sintagmas nominales sin determinación en lengua vasca, los cuales, bajo el punto de vista del número gramatical, no son ni singulares, ni plurales, por no existir en la misma moción de número en las palabras, debiendo utilizarse para ello el artículo u otros determinantes que lo tengan. Tales sintagmas, además, cuando van en frase negativa y carecen de adjetivo expresan negación absoluta. Pueden usarse también en protasis condicionales afirmativas o negativas, en frases interrogativas afirmativas o negativas, etc., existiendo restricciones en frases afirmativas absolutas, aunque pueden aparecer, sin embargo, cuando éstas son expresivas, etc. Tales sintagmas nominales tampoco son colectivos ni de otra especie, para la expresión de cuyos conceptos existen determinantes adecuados de valor colectivo, etc.

También se combate una abusiva normativización de la lengua a golpe de decreto.

RESUME

Il s'agit d'une étude qui, en réponse à un article d'Ibon Sarasola, «Bat mugatua eta mugagabea literatur tradizioan», essaie de faire le point de la question des syntagmes nominaux sans détermination en langue basque, lesquels, du point de vue du nombre grammatical, ne sont ni singuliers ni pluriels, puisqu'il n'existe pas dans cette langue de notion de nombre dans les mots, et qu'il faut pour ce faire utiliser l'article ou un autre déterminant qui l'exprime. D'autre part, ces syntagmes, lorsqu'ils sont dans une phrase négative et n'ont pas d'adjectif, expriment la négation absolue. On peut également les employer dans des protases conditionnelles affirmatives et négatives, dans des phrases interrogatives affirmatives et négatives, etc., avec des restrictions dans les phrases affirmatives absolues, bien qu'ils puissent cependant apparaître lorsque celles-ci sont expressives, etc. Ces syntagmes nominaux ne sont pas non plus collectifs ni d'une autre espèce, et il existe pour l'expression de ces concepts des déterminants appropriés de valeur collective, etc.

Nous combattons également une réglementation excessive de la langue à coup de décrets.

SUMMARY

This article, which is a reply to Ibon Sarasola's «Bat mugatua eta mugagabea literatur tradizioan», tries to throw light on the question of undetermined noun phrases in Basque, which from a grammar number point of view are neither singular nor plural, as there is not such concept in words; this has to be expressed through the article or other determiners. Such groups, besides, when used in a negative sentence without an adjective, express absolute negation. They may be used in negative or affirmative conditional protasis, in interrogative, negative or affirmative sentences, etc.... with restrictions in absolute affirmative sentences except when these are expressive. Such noun phrases are not collective either. There are certain determiners to express this concept.

We also criticise the abusive standardization of the language through norms.